

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Jendaurrean jartzea hirigintza planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala, zeina baita “teknologia fotovoltaikoaren bidez energia elektrikoa produzitzeko instalazioen” erabilera (431/2014 Errege Dekretu ekainaren 6koaren 1.1.1 azpimultzoa) baimentzeko Bastidako herriguneko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian

Udal honek, osoko bilkurak 2016ko uztailaren 20an hartutako erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman dio hirigintza planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteari, zeina baita “teknologia fotovoltaikoaren bidez energia elektrikoa produzitzeko instalazioen” erabilera (431/2014 Errege Dekretu ekainaren 6koaren b.1.1. azpimultzoa) baimentzeko Bastidako herriguneko hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian.

Hala, bada, iragarki honen bidez, jendaurrean jartzen da espediente hori eta berari buruz Arabako Foru Aldundiaren ingurumen organoak emandako ingurumen txosten estrategikoa, eta hilaibeteko epean egongo da jendaurrean, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.5 artikulua arabera kontatuta epea (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa). Epe horretan, espediente aztertzeko modua izango da, bai eta egoki irizitako alegazio eta iradokizunak aurkezteko ere.

Espedientea erakusgai dago udal honen bulego teknikoan, eta bulego orduetan kontsultatu ahal izango da.

Erabaki honek amaitu egiten du administrazio bidea, eta beraren aurka ezingo da aurkeztu administrazio errekurtsorik, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 107.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (30/1992 Legea, azaroaren 26koa).

Bastida, 2016ko uztailaren 27a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA